

2013ko Arlo eta Diziplina zientifikoaren arabera Espainiaren Unibertsitate I-UGR Ranking-aren laugarren edizioa argitaratu da

2013/05/30

Lehenago 'Ranking ISI' izenarekin ezaguna, **Arlo eta Diziplina zientifikoaren arabera Espainiaren Unibertsitate I-UGR Rankingak** Estatuko unibertsitate publiko eta pribatuen klasifikazioa eskaintzen du, nazioarteko mailan bisibilitate eta eragin handiko aldizkarietan argitaratzen diren ikerketen oinarrituta.

Estatuko ikerketa sistema unibertsitarioak jakintza arlo desberdinetan dituen indarrak eta ahultasunak azaltzea du helburu orokorra.

12 arlo eta 37 diziplina zientifikoekin ranking-ak eskaintzen ditu, unibertsitateek zer espezialitatetan duten eragin handiena errazago jakin dezagun.

Denbora-serie luzeak ezartzen ditu, 5 urteko denboraldia (**2008-2012**) eta hamar urteko denboraldia (**2003-2012**).

Unibertsitateak ordena daitezkeen eragina eta ekoizpena neurtzeko 6 indikadore bibliometrikoak bateratzen dituen **indizea** erabiltzen da, **IFQ²A-Index** izenekoa.

Laugarren edizio honen nobedadeen artean joeren azterketa grafikoa aipagarria da, unibertsitateen bilakaerari buruzko informazioa jasotzeko.

Ranking guztiak, bai arloaren arabera, bai diziplina zientifikoaren arabera, hurrengo atarian kontsulta daitezke:

<http://www.rankinguniversidades.es>

2013 urteko emaitzez gain aurreko edizioenak ere eskaintzen dira.

Gainera unibertsitate baten perfila kontsulta daiteke, edo unibertsitateen arteko konparaketak egin daitezke.

Interesatuta bazaude ondorengo laburpena ere kontsulta dezakezu, **'Posiciones de las universidades españolas y de las comunidades autónomas en los Rankings I-UGR según campos y disciplinas científicas'**.

